VILLA MAGDALENA

# *Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*

**01.07.2023 - 22.09.2023**

**Itsasargi Pasealekua 33, 20008, Donostia-San Sebastián, Gipuzkoa, Euskadi, Espainia**

*Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*

Uztailaren 1etik - iIrailaren 22ra, 2023

## Prentsa Oharra

Villa Magdalenak atsegin handiz iragartzen du *Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*. Alejandro Garmendia (Donostia, 1959-2017) artista espainiarra zenarena, uztailaren 1etik irailaren 22ra. Esposizio honen izenburua erakusketako bi lan nagusitik hartu da, oraingo honetan lehen aldiz batera ikusgai dauden izen bereko pintura eta eskulturatik. *El Ingenio Revolucionario*, aldi berean, ironia eta errebelazioa da: egileak uste du forma eta kontzeptuan iraultza bat irudikatuko lukeen zerbait asmatu duela. Mundua ikusteko edo begiratzeko modu berri baten ikurra, hortik dator *El Ingenio Revolucionario*. Egileari berari buruzko begirada sarkastikoa.

Alejandro Garmendia jarrera subertsiboa zuen artista izan zen, eta paisaiaren eta arkitekturaren egitura estetikorako eta alderdi formaletarako hurbilketa burutsua egin zuen. Horiek abiapuntu batera zuzendu zituen, non irudi sorta bat forma desberdinetan agertzen zen, existitzen ez dena dokumentatuz eta fisikoki ezinezkoa dena sortuz. Eszena horiek ez dira nahitaez estilo jakin batera mugatzen; bakardadez eta malenkoniaz betetako pertsonaia emozional baten ikuspegi urruna iradokitzen dute, eta horrek irrealtasun margotu batera garamatza.

Garmendiaren irudimenezko espazioen garapena marrazten duten 90eko hamarkadako collage eta pinturak barne hartzen dituen obra sorta laburra dago ikusgai. Eskulturak, *El Ingenio Revolucionario* (2003-2004), eta artistaren musikakonposizio instrumentalak, aurreko lanekin batera, Garmendiaren obraren izaera atmosferikoa azpimarratzen dute.

Gau batean, 80ko hamarkadan, artistak vintage arkitekturako aldizkari mordoa lapurtu zuen festa batean. Espainiako, Frantziako eta Alemaniako argitalpen batzuk 1900ekoak ziren, eta beste batzuk hogeiko hamarkadakoak. Aldizkari zaharrenek Art Nouveau barne-diseinuak erakusten zituzten, eta ondorengoek Art Décoren lehen urratsak dokumentatzen zituzten. Dokumentu historiko horiek emultsio fotografikoko koadroetan ikusten ditugun barne-diseinu fantasmagorikoen iturri dira, baita erakusketako eskulturak anbiguoki irudikatzen duen argimutil alderantzikatu enigmatikoarena ere.

Lagin honetako elementuen arteko erlazioa aztertzen dugunean, efektu orokorra denboran eta espazioan erabat aldenduta dagoen ingurune arrotz bar sortzea da. Testuingururik gabeko arkitekturaren eszena desorientatzaileak, artistak ingurune fisikoarekin duen edozein lotura logiko desitxuratzeko duen printzipioak gidatuta, ordena metafisiko berri bihurtzen dira. Batek etxe inguruko bertsio ezberdinak ikusten ditu. Objektu fantasmagorikoak mugitu egiten dira, begiratzen duguna beste mota bateko espazio piktoriko bihurtuz. Etxeko objektuak egon arren, badirudi bizitzak aspaldi utzi duela esparru hori. Collage ikerketa txikiak artistak egingo zituen lanak baino handiagoak bihurtu ziren, baita beste plan handinahiago batzuk ere, baina ez zituen inoiz gauzatu.

Alejandro Garmendia hiri askotan bizi izan zen, eta haietan lan egin zuen, besteak beste, Donostian, Madrilen eta New Yorken. Arte Ederrak ikasi zituen Bilboko Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Bakarkako erakusketa garrantzitsuak egin ditu Masha Prieto galerian (1988, Madril, Espainia); Antonio Machón galerian (1994, Madril, Espainia); Colon Galerian (2000, Bilbo); Generous Miracles Galleryn (2001, New York, AEB); McClain Galleryn (2007, Houston, AEB). 2007an Andreas Gursky, Jan Fabre, Per Barclay eta Man Ray-rekin batera erakutsi zituen bere lanak Madrilgo Reina Sofía Museoan, *Perceptions* erakusketa kolektiboan. 2018ko martxoan, hil eta handik urte betera, omenaldi gisa atzera begirakoa egin zitzaion, Kursaaleko Kubo-Kutxa aretoan, *Alejandro Garmendia: Paisaiak, enigma eta malenkonia*. 2023an, Garmendia San Telmo Museoko (Donostia) *90eko* hamarkada erakusketa kolektiboan parte izan zen. 80ko eta 90eko hamarkadan, eta 2000. urtearen hasieran Euskal Herrian lan egin zuten artista-taldeetara egindako hurbilketa izan zen. Bere lana Madrilgo Reina Sofía Museoaren eta Donostiako San Telmo Museoaren bilduma iraunkorraren parte da.

Asteartetik igandera, aldez aurretik hitzordua eskatuta.
Informazio gehiagorako: info@villamagdalena33.com

VILLA MAGDALENA

*Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*

Uztailaren 1etik - ilrailaren 22ra, 2023



Alejandro Garmendia
*El Ingenio Revolucionario*
2003-2004
Zura, kobrea, kristala, erretxina eta audio-instalazioa
105 x 180 x 70 cm
(41 x 71 x 28 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*El Ingenio Revolucionario*
1994 - 1998
Berniza, erretxina eta emultsio fotografikoa mihise gainean
244 x 361 cm
(96 x 142 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1997
Berniza, argizaria eta emultsio fotografikoa mihise gainean
100 x 163 cm
(39 x 64 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1998
Fotomuntaketa
57 x 48 cm
(22 x 19 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1998
Fotomuntaketa
57 x 48 cm
(22 x 19 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1995
Fotomuntaketa
57 x 48 cm
(22 x 19 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1995
Fotomuntaketa
57 x 48 cm
(22 x 19 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1995
Fotomuntaketa
57 x 48 cm
(22 x 19 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
2004
Fotomuntaketa
57 x 48 cm
(22 x 19 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1995
Fotomuntaketa
57 x 48 cm
(22 x 19 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1995
Fotomuntaketa
48 x 53 cm
(19 x 21 pulgadas)



Alejandro Garmendia
*Izenbururik gabea*
1995
Fotomuntaketa
44 x 47 cm
(17 x 19 pulgadas)

Alejandro Garmendia, *Up the Hill*, 2013, 0m 56s

Alejandro Garmendia, *Litlelikebig*, ca. 2010, 1m 04s

Alejandro Garmendia, *Mieres*, 2013, 13m 00s

Alejandro Garmendia, *Frapasam*, 2005, 1m 26s

Alejandro Garmendia, *FLODZOGH,* 2014, 0m 56s

Alejandro Garmendia, *Sad Satie,* ca. 2010, 2m 16s

Alejandro Garmendia, *The ingenious one*, 2014, 1m 30s



Instalazioaren ikuspegia: *Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*, Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkiak.

VILLA MAGDALENA



Instalazioaren ikuspegia: *Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*, Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkiak.



Instalazioaren ikuspegia: *Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*,
Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkiak.



Instalazioaren ikuspegia: A*lejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*, Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkiak.



Instalazioaren ikuspegia: *Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*, Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkiak.

VILLA MAGDALENA



Instalazioaren ikuspegia: *Alejandro Garmendia: El Ingenio Revolucionario*, Villa Magdalena, Donostia. Idoia Unzurrunzagaren argazkiak.